



Erloju handia  
Kenneth Fearing

Atsegina liburua. Amen batean irakurtzen da, nagikeriarik gabe. Modu adimentsu eta berezi batez planteatuta dago. Baina ezin dut hala ere esan erabat gatibatu nauenik edo irakurle gisa paroxismoraino eraman nauenik. Ziur aski, eleberri beltzaren helburua bera ere ez da hori (liburu honek berekin dakarren soka luzeagatik diot hori). Dena den, esan bezala, ez da inondik ere gogaikarria, eleberri beltz amerikar ona da eta han-hemen azaltzen diren inprentako akats batzuk gorabehera, liburu ospetsu hau euskaraz irakurtzeko zortea daukagu. Beste itzulpen on bat saskira, lagunok!